

Eider Rodriguez Parra

F maila • **Aipamena**

2012ko urriaren 29an Beasainen jaio nintzen eta geroztik bertan bizi naiz. 9 urte ditut eta LH 4. mailako ikasketak Murumendi Ikastetxean burutzen ari naiz.. Zaletasun ugari ditut, musika entzutea, dantzatzea, kirola egitea, Beasaingo Igartza Igeriketa taldeko kide naiz eta baita BKLko saski eskolakoa ere. Idazketa inguruan jasotzen dudan lehen saria da eta azkenekoa ez izatea espero dut.



IHESALDIA

Behin batean, baziren Unax eta Maria izeneko bi anai arreba. Etxe handi batean bizi ziren. Denetarik zeukaten, ordenagailuak, tabletak, bideo-jokoak, mobilak,... Horren handia zen beraien etxea, igerilekua eta guzti zuela. Neska mutil gehienentzako paradisua, beraiek ordea ez ziren zoriontsu, izan ere, beraien gurasoak ez zieten kasurik egiten eta. Unax eta Maria bakarrik zeuden beti, nahi zuten guztia zeukaten, beharrezkoena izan ezik, beraien gurasoen maitasuna.

Egun batean, logelan jolasten ari zirela, amonaren etxera ihes egitea pentsatu zuten, amonak asko maite zituen eta beraiekin jolas asko egiten zuen.

Hurrengo egunean, goizean goiz, gurasoak lanera joan ziren eta bi anai arrebak eskolara joateko autobus geltokira. Autobusa iristean, ez ziren igo eta oinez tren geltokira joan ziren. Ordu bete trenean ibili eta gero, amonaren herrira iritsi ziren. Beraiena baino herri askoz txikiagoa zen, oso lasaia eta polita zen. Bertan lagun asko zituzten, txikitatik udarako oporrak han pasatzen zituztelako.

Amonaren etxera iristerakoan txirrina jo zuten.

- Sorpresa!!!! - Oihukatu zuten biek batera.

- Kaixo! Baina zer egiten duzue zuek hemen? iritsi al dira udako oporrak? - Galdetu zien amonak.

- Beno, ba... - Zer erantzun ere ez zekiten. Ez zitzairen gezurrak esatea gustatzen, gutxiago amonari gezurretan aritzea.

- Amona, ez, ez da opor garaia. Etxetik ihes egin dugu! - Erantzun zion Mariak.

- Ihes? - Esan zuen amonak txunditurik. - Zergatik?

- Amona, aitatxo eta amatxo asko maite ditugu, beraiek denetik ematen digute, baina ez gaituzte maite eta ez dute gurekin egoteko denborarik - Esan zuen Unaxek begietatik malkoak erortzen zitzaizkion bitartean.

PROSA

Amonak zer esanik ere ez zekien. Baina bi bilobak besarkatu, muxu potolo bana eman eta barrura sartzeko eskatu zien.

- Zer iruditzen zaizue bazkalondorako gazta tarta goxo bat egiten badugu? - Galdetu zien amonak.

- Eta arroz esnea egiten badugu baita ere? - esan zuen Unaxek.

- Ideia bikaina! - esan zuen amonak.

Goiz osoa sukaldatzen pasa zuten hirurek. Bazkaldu aurretik jolasean aritu ziren. Kartetan, xakean, ... Bazkaltzen amaitutakoan, sukaldea jaso eta filma bat ikusi zuten telebistan. Iluntzen hasia zen eta amonak esan zien:

- Berandu da eta etxera joateko ordua dela iruditzen zait.

- Ez amona, ez gara bueltatuko. Hemen gelditu behar dugu zurekin bizitzen. - Esan zuen Mariak.

- Nola? Ezinezkoa da. Amatxo eta aitatxo zuen zain egongo dira.

- EEEZZZZ! - Esan zuten biek batera. - Ez gara etxera bueltatuko! - Gehitu zuen Mariak.

- Amona, egun osoa bakar bakarrik pasatzen dugu, beraiek lan baino ez dute egiten. Ez dute inoiz gurekin jolasten, ez dugu ezer ez egiten elkarrekin, nahiago dute lanean egon gurekin egotea baino. - Negar zotinka esan zuen Unaxek.

- Bai amona, gehienetan bakarrik afaltzen dugu, ohean izaten gara etxera iristen direnerako, eta goizean lanera joaten direnean baino ez ditugu ikusten. Etxea janariz, jostailuz eta behar ez ditugun mila trastez beterik dago, baino garrantzitsuenak falta dira, beraiek!

Amonak zer esanik ere ez zekien eta bi umeak lasaitu nahian zera proposatu zien:

- Zer iruditzen zaizue kolakao goxo bat hartzen badugu ohera joan aurretik. Zuen oheak prest daude, beti bezala, eta bihar goizean guzti honi buruz hitz egiten badugu.

- Ados! - Esan zuten biek batera.

Kolakaoa hartu eta gero ohera joan ziren. Ez zuten denbora asko esna pasa, oso nekatuta zeuden eta berehala loak hartu zituen. Bitartean Unax eta Mariaren amonak beraien gurasoei deitu zien, bi umeak bere etxean zeudela esanez. Hurrengo egunean gosaltzen ari zirela norbaitek txirrina jo zuen. Mariak atea ireki eta aita eta ama zirela ikustean berehala atea itxi zuen eta amonarekin haserretu zen.

- Amona, zer egin duzu? Zuk ere ez gaituzu maite? Ez duzu zurekin egoterik nahi? - Oihu egin zion Mariak.

- Zabaldutua, zuen gurasoak dira, e dute horrelakorik merezi - Erantzun zion amonak.

Amonak atea ireki zuen berriro eta barrura sartu zitezen esan zien.

- Egunon, hemen zaudete! - esan zuen amak irribarretsu.

- Ez gara zuekin etxera bueltatuko, ez gaituzue maite eta ez dugu zuekin egon nahi. - Esan zuen Mariak.

- Zer iruditzen zaizue denon artean arazo txiki hau konpontzen saiatzen bagara? - esan zuen amonak maitekor.

PROSA

Goiz osoa pasa zuten eztabaidan, hizketan, batzuetan negarrez eta tarteka oihuka, baina Maria eta Unaxek, beraien gurasoekin zituzten arazo guztiak konpontzea lortu zuten. Gurasoek, horrenbeste lan egin beharrean, beraien seme alabekin denbora gehiago pasa beharra zutela ikasi zuten, diruarekin erosi behar diren gauzak baino nahiago zutela beraien denbora elkarrekin igarotzea. Helburu batzuk finkatu zituzten eta handik aurrera egunero egunero zerbait egiten zuten lauak batera. Gainera astero astero, amonaren etxera joaten ziren bisitan, batzuetan laurak batera eta beste batzuetan bi anai arrebak bakarrik. Etxe guztietan bezala haserrealdiak izan zituzten, baina handik aurrera oso familia zoriontsua izan zen.

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Murumendiko plazan.